

KOSTUEN EGITURA

Hasieran sare-sozialak ez ditu erabiltzaile askorik izango, jendea ez du ezagutuko eta. Beraz, diru-sarreraren kopurua oso txikia izango denez, diru laguntzak edo maileguak eskatu beharko ditugu. Kontratatu ditugun pertsonen kopurua proportzionala izango da erabiltzaile kopuruarekin eta, beraz, sare sozialaren bolumenarekin. Horrekin esan nahi dugu, sare-soziala sortu berri denean langile kopuru oso txikia izango dugula, informatikoak besterik ez, alegia.

Geroago, sare-sozialaren arrakasta handitu ahala, erabiltzaileen kopurua handiagoa izango da eta, beraz, diru sarrerek ere handituko dira. Kopuru batzuk estimatzeko sare-sozial (handiagoena) batenak erabiliko ditugu:

Twitterren kasuan, 320 milioi erabiltzaile inguru erabiltzen dute sare-soziala eta 720 milioi dolar inguru ingresatzen ditu. Horietatik, 79 milioi dolar datuen banaketari eta salketari dagokie.

Argi dago Twitter sareak erabiltzaile asko dituela eta gure enpresak denbora asko behar izango duela erabiltzaile kopuru horretara heltzeko; hala ere, horrekiko proportzionala den kopuru bat estimatuko dugu, beti kontuan izanda hasiera batean erabiltzaile kopurua nulua izango dela:

	ERABILTZAILE KOPURUA	DIRU-SARRERAK
TWITER	320 milioi	720 milioi
Estimazioa (3 hilabete igaro ondoren)	3000	6750

Diru horrekin langileei ordaintzeko gaitasuna izango dugu; lehenengo langile-kopurua oso txikia izango da eta. Espero dugu gure sare-sozialaren erabiltzaile-kopurua denborarekin ESPONENTZIALKI handitzea, beraz, denbora pasa ahala gero eta diru-sarrera gehiago izango ditugu.

Diru-sarrera horiek handitu ahala maileguak bueltatuko ditugu eta lehenengo etekinak aterako ditugu. Zenbat eta arrakasta handiagoa izan gure sare-sozialak, gero eta langile gehiago kontratatu beharko ditugu; aldi berean, soldata horiek ordaintzeko baliabide gehiago esango ditugu.